

LAUKIZ eta MARURI-JATABEko EUSKARA ZERBITZUA

# eUTSI!

2009ko URTARRILA - 22 ZK.

**BAKEA ETA ZORIONA**



## LAUKIZKO LORE JOKOAK

Berrero ere azaroa helduta, San Martin omenezko kontuak datoz Laukizera: Lore Jokoak alegia.

Beti bezala, IV Olerki lehiaketa burutu zen liburutegian eta ondoren probalekuan festak jarraitu zuen.

Gero ere, azaroak 11, San Martin eguna, denontzako bertako produktuen dastaketa izan genuen.



## BERTSO BAZKARIA LAUKIZEN

Aurten be egin da Laukizen Bertso bazkaria Aiko kultur taldeak eta Laukizko Euskara Zerbitzuak antolaturik. Oraingo honetan, Miren Ibarluzea, Fredi Paya eta Etxahun Lekue izan ziren gugaz. Guztira 60 bat lagun bildu ginen Atxispén, M<sup>a</sup> Carmen eta konpainiak prestatutako bazkari goxoaz disfrutatzen.



# JATABEGINTZA

Intervida erakundeak herrialde behartsuenentzat batutako diruetatik batzuk desbideratu egin dituala jakin danetik, hainbat idatzi da horri buruz. Oraindik ere zabalik dago desbideratze lotsagarri horren ikerketa. Horrelakoetan ez dira falta izaten honako eretxiak: “Hori jakinekoa zan...”, “Lehenago edo beluago beti agertzen da holakoren bat...” “Horregaitik ez dot nik ezer emoten...” Hau da, ez emoteko beti aurkitu daiteke aitzakiaren bat.

Horrelako eskandaluen errua ezin da antzerako erakunde guztien gainera bota, danak gutxi asko errudunak balira lez. Salbuespena ez da araua eta, horregaitik, bakoitzari berea, onean eta txarrean.

Jatabegintza osotzen dogunon ustez, generalizazioa ez da zuzena. Gobernuz kanpoko hainbat eta hainbat erakunde (erderaz ONG deitzen diranak) eta gizon-emakume asko lan eta lan dabilta, pobrezia gorrian dagozan pertsona eta herrialdeen alde. Jo eta ke dabilta behartsuen etorkizuna hobetu guran, hezkuntza, ekonomia eta osasun arloetan batez ere.

Kontuak argi eta garbi emotea ezinbestekoa da, justiziaren eta alkartasunaren bideetatik aurrera egiteko. Horixe da, hain zuzen, oraingo honetan ere egin gura doguna. Joan dan azaroaren 29an izandako Bertsoafarian, 672 euro hartu genduzan: 375 euro Udaletxeak emonda, jaia eratzen egin genduan lanagatik; 75 euro Jatabegintza taldekoon afariagatik; eta beste 222 euro Gabonetako otzaren zozketatik eta herritarrak egindako beste erregalu batzuetatik etorri jakuzan. Guztioi, eskerrik asko bihotz-bihotzez.

Diru hori Xabier Goikouria misiolariari emon deusagu. Kongoko anai-arrebak gure laguntza behar dabe, orain, behar bada, inoiz baino gehiago. Xabierrek berak esaten dauanez, “guztion laguntza oso garrantzitsua da, nahiz eta itsasoan jausten dan tanta baten tamainakoa izan; azken baten, tantaka bakarrik amatatu daitekkelako hango egoera larriaren sua”.

**Oharra:** Jatabegintzak batzen dauan diruaren jabeak Jatabetarrak gara. Erakunde horretan kudeatu besterik ez dogu egiten zuok emondakoa. Gure barri izan gura dozuenok, deitu, mesedez, gure kontuen barri izateko zein lankide izateko. Mila esker zuen harreragatik.

Xabier Goikuriak bidalitako gutuna:

Jatabegintzako lagun maiteok:

Berriro ere eskertu behar dizuet, pertsona behartsuek aldeko egindako elkartasun ekintza, zeren eta kanpotik datorren laguntzarik gabe ezin bizi, produzitzeko baliabiderik ez dute eta. Bizitza serioz planteatzeko dituzten beharrak handiak dira baita etorkizuna duintasunez bizitzeko ere. Elbarrituen Zentrua, non ikaslegoa barnetegi erregimenean dagoen beraien gurasoek behar beste ez baitute Zentruan egoteko, zein Kabulumbu nekazariak eguneroko goseari aurre egiten saiatzen direnak, zuen lankidetzak eskertzen dute. Ditzuten baliabide guztiekin borrokatzen jarraituko dute, bakarrik ez daudela ondo dakite eta. Bertso afariak direla, zozketak direla, Agate Deuna dela, badakite zuen bihotzetan daudela, laguntza eskeintzeko prest, miseria gorrian betiko ez jausteko.

Zuen 672 €hartuta Congorako bidea hartu dut urtarrilaren 4an. Guztien izenean, berriro eskerrak eman eta animatu gura zaituztet jarrera horretan segitzeko, zuen txantxa eta barre algaren artean, hemengo lagunei oxijenoa bidaltzen segitzeko. Horrela hemengoek arnasa hartzeaz gain oraindik aurkitu ez duten duintasuna berreskuratu dezatela.

Eskerrik asko, bihotz, bihotzez

Xabier



# LAUKIZ KULTURALA ETA UMEEN JAIA

Irudiek askotan hitzak baino gehiago adierazten dutenez, hona hemen pasa den urriaren 4 eta 5ean izan genituen ekitaldien laburpena: Umeak indioz jantzita, txotxongiloak, umeentzako berbena (Txanogorritxo rock) eta hurrengo egunean Zanpantzarrak eta "Nortasunaren bila" ikuskizuna (beharbada jende gehien erakarri zuena). Datorren urtean gehiago!



## MARURI-JATABEKO ELKARTASUN ZUHAITZA

Pasa den abenduaren 13an, Maruri-Jatabeko ume batzuk Kultur Etxean bildu ziren beste herrialdeetako errealitatea ezagutzeko eta beraien elkartasun desioak adierazteko. Lehenengoz, herrialde ezberdinetako argazkiak ikusi eta ume horien eguneroko bizitza nolakoa den ikusi ahal izan zuten. Batzuk harrituta geratu ziren argazkiak ikusterakoan! Ondoren mahaietan zeuden pinturak, kartulinak eta paperak hartu eta apur bat pentsatu ondoren, "konpromezu txikiak" (geroan bete ahal izateko, jakina) hartu zituzten, paper batean adierazi, gutunazal batean sartu eta gelaren erdian jarritako zuhaitzean eskegi zituzten. Gutunazal horretan bakoitzaren helbidea agertzen zen, zeren eta ekintza honek sorpresa izango du: haiek markatutako epea igorota (3, 6, 9 ala 12 hilabete) etxera helduko zaie eta orduan ikusi ahal izango dute egun horretan hartutako konpromezua benetan egin den ala ez. Bitartean Gabonetan ikusgai egon da Kultur Etxean eta Olentzerok be kontuan hartu zuen, Jatazpi Txokoan adierazitakoaren arabera!



## MARURI-JATABEKO BERTSO AFARIA

10 urte pasa dira jadanik ohiko bihurtu den lehenengo bertso afaria antolatu zenetik. Hasiera-hasieratik ere, azaroaren azken zapatua egin ohi da. Hamar urte hauetan, bertsolari ezberdinak pasa dira eta guztiakin ondo pasatzeko aukera izan dugu. Aurten lehenengoz, neska bat izan dugu Iratxe Ibarra bizkaitarra eta beragaz batera Anjel M<sup>a</sup> Peñagarikano gipuzkoarra. Azken urteetan ere ohitura bihurtu da Jatabegintzaren laguntza afaria prestatzeko eta beste guztiaz arduratzeko. Hala ere, ezin ahaztu gure Patri sukaldaria, bera barik ez dago afaririk eta!. Afaria amaitutakoan bertsoan hasi eta lehenengo atesedenaldia aprobeztatu zuten Jatabegintzakoek euren boletoak saltzeko. Gabonetako otzarak, sagar-tartak eta beste hainbat sorpresa zozketatu ziren. Zozketa honi esker, Jatabegintzak diru apur bat atera zuten beren proiektu solidarioetarako. Datorren urtean gehiago eta hobe, ziur!.



## LAUKIZKO LIBURUTEGIKO EKINTZAK

Pasa den urtearen amaieran hasitako ohiturari jarraituz (2008an zehar jarraipena izan duena) Laukizko liburutegiak hilean behin gutxi gora behera beren ekintzak burutu ditu. 2008ko urritik abendura bitartean honako honetaz gozatu ahal izan dugu:

Urrian, Ipuin kontalaria eta txotxongiloak izan genituen. Rosak iaz ere egin zigun bisita eta hain pozik geratu ginenez, berriro ekartzea erabaki genuen. Azaroan Benja ipuin kontalaria ere etorri zen betiko ipuinak entzuteko. Batzuei oso motz gelditu zitzaien saioa (aspertu ez direnen seinale, dudarik gabe!). Eta abenduan, Gabonak gainean genituela ohitura bihurtu den, Gabonetako apaingarrien tailerra. Ekintza hau egiteko aurten Atxispe lokala erabili dugu zeren eta gero eta jende gehiago etortzen den eta liburutegi txiki gelditzen zaigun. Urtero bezala, txikiak ezezik nagusiak ere, jo ta ke ibili ziren apaingarriak prestatzen.

Datorren urtean, otsailean hasita, honelakoak eta ekintza berriak prest egongo dira liburutegian. Erne egon!



## LAUKIZKO IPUIN LEHIAKETA

Urtero legez, Euskara Zerbitzuak ipuin lehiaketa antolatu du. Aurten 13 ipuin aurkeztu dira lau kategoriatan; A kategorian 4 ipuin, B kategorian beste 4, C kategorian 3 eta D kategorian (16 urtetik gorakoentzako) 2. Ohikoa denez denotzako liburuak eta boligrafoak banatu ziren arren (idazten jakin eta jarraitzeko!), aurten honakoak izan dira irabazleak:

### A Kategoria:

1go saria: Irati Zarraga, 5 urte, "Txitxirioren abenturak"

2 saria: Joseba Mentxaka, 7 urte, "Iñaki baserritarra"

### B kategoria:

1go saria: Julene Zorriketa, 9 urte, "Olentzeroren tripa"

2. saria: Iزارo Elgezabal, 8 urte, "Eguzkia eta Ilargia"

### C kategoria:

1go saria: Itsaso Guerrero, 14 urte, "Zergatik negar egiten duzu, ilargi?"

2. saria: Eñaut Agirre, 15 urte, "Agur Peio"

### D kategoria:

1go saria: Alazne Mugarza, 24 urte, "Benetako adiskidetasunaren istorioa"

2. saria: Saioa Sanz, 30 urte, "Bizitzaren bideak"



**Ea datorren urtean jende gehiago animatzen den!!**

# UMEENTZAKO EKINTZAK KULTUR ETXEAN

Irailean hasi eta abenduan amaitu, hilean behin Maruri-Jatabeko umeek zita izan dute Kultur Etxean. Zientzia taillerak, Elvi sabelhiztuna, txotxongiloak eta Marsel Magoa izan dira lau hilabete hauetan programatutako ekintzak. Ekintza hauen helburu nagusia Kultur Etxe berria ezagutaraztea izan da, bai umeei begira bai familiei begira. Ekintza gehienetan nahiko jende hurbildu da, herrikoa batez ere, eta hauxe zen bigarren helburua: herriko jendea batzeko lekua izatea. Bai bata bai bestea, bete direlakoan gaude, umeak pozik egon dira eta gurasoak ere bai.

Datorren urtean, liburutegia ezagutarazteko eta irakurzaletasuna bultzatzeko programa bat aurrera eramateko asmoa dugu. Espero dugu denon gustokoa izatea.



## BERDINEAN EMAN EUSKERAZ !

Hirugarren urtez, igazko urtearen amaieran, Laukiz eta Maruri-Jatabeko udale-tako Euskara Zerbitzuok BERDINEAN EMAN EUSKERAZ! izeneko kanpaina burutu genduan. Bertan ume jagole zereginak, aisialdi eta kirol begiraleenak baita eskola partikularrak emoteko eta nagusiak zaintzeko be prest egoan jenteari aukera emon jakon zerrenda batzuetan euren izena emoteko.

Herritar gutxik erantzun eben deialdiari, euren izena emoten eta euskeraz lanean hasteko prest. (Esan behar da igaz izena emon eben gehienek lan egiteko aukerea izan ebela udan batez be.). Hori dala eta, jakinarazo nahi deutsegu lan poltsa hauek zabalik jarraituko dabela

Kanpaina honen helburu nagusia esparru desberdinetan euskerearen erabileran eragitea da eta horretarako ahal dogun ginoan zeuoi bidea erraztu.

Horreetako zereginetarako baten bat beharko bazendue, Laukiz edota Maruri-Jatabeko Udaletako Euskara Zerbitzuetara hurreratzea baino ez daukazue. Bertan emongo jatuzez ataza horretarako izena emon dabenen datuak. Eskatzea baino ez daukazue.

Argi itxi gura dogu, halanda be, Udalok bitatekaritza lana baino ez dogula egingo. Ganerako kontuak zeuon artean adostu beharko dozuez.(ordutegia, ordainsaria, baldintzak...)

Datu pertsonalak dira eta, hagaitik, euren erabilera egokiari buruzko indarrean dagoan araudiari atxikita dagoz eta emoten diran helbururako baino ezin izango dira erabili.

Guztion artean, egin daigun ahalegin euskerea eremu guztietan bizi daiten bideak zabaltzen



# ABESTU GEUGAZ!!

## ITXAROPENA - KEN ZAZPI

ZUGAN SINISTEN EZ DUZUN UNEETAN  
ENTZUN BARRENEKO AHOTS XUME HAU  
KONPROMEZU TA KONTRAESANETATIK  
AZALERATZEN DEN GARRAXI ISIL HAU

SENTI ZAZU DISDIRA BAT ITZALETAN  
HITZAK LEHERTZEN DIRENEAN  
BEHIN DA BERRIZ EZINTASUNEN GAINETIK  
ASKE IRAUTEN DUGULA SENTI ZAZU

ITXAROPENA EZIN DA GILTZATU  
GURE BIHOTZ MINDUETAN LIBRE DA  
ZIGORTU ARREN BAT EGITEN GAITU  
MALKO BAKOITZEAN, PAUSU BAKOITZEAN

SENTI ZAZU DISDIRA BAT ITZALETAN  
HITZAK LEHERTZEN DIRENEAN  
BEHIN DA BERRIZ EZINTASUNEN GAINETIK  
ASKE IRAUTEN DUGULA SENTI ZAZU


BISETAKO MOSUETAN  
UMEEN IRRIFARRETAN  
HAINBESTE MAITE DITUDAN  
ZURE BEGI TRISTEETAN

AHOTS ISIL HAU ENTZUN  
ITZALETATIK ENTZUN  
BIHOTZ TAUPADAK ENTZUN  
SENTI NAZAZU GERTU

SENTI ZAZU DISDIRA BAT ITZALETAN  
HITZAK LEHERTZEN DIRENEAN  
BEHIN DA BERRIZ EZINTASUNEN GAINETIK  
ASKE IRAUTEN DUGULA SENTI ZAZU



MARURI-JATABEKO  
UDALA




LAUKIZKO  
UDALA

**ALE HONETAN  
PARTE**

**HARTU DUTE**  
MARIA FERNANDEZ  
JATABEGINTZA  
SAIOA SANZ  
FERNANDO UNIBASO



Bizkaiko Foru Akundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura



euskara biziberrikerako plan nagusia  
plan general de promoción del uso del euskara



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA